

ELAren 14. biltzarra:
inoiz baina politikoagoa
den proiektua

CHRISTIAN DUFOUR
ADELHEID HEGE

ELAren 14. biltzarra: inoiz baina politikoagoa den proiektua

Christian Dufour eta Adelheid Hege

- 4 Borroka armatuaren amaiera eta berregokitzapena EAEn
- 6 Hazkunde ekonomikoa eta soldatapekoen bilakaera
- 9 Erakundea garatzen eta eraldatzen norabide jakinean
- 11 Anti-prekaritatea eta feminismoa ardatz estrategiko gisa
- 12 Klase sindikatu abertzalea, zeregin politikoa berresten duena
Sindikalismoa, subiranismoaren zutoihaldun berria
Negoziazio kolektiboaren ikuskera politikoa
- 15 Ondorioa: liderraren papera
- 16 Iturriak
- 18 Oharrak



Dokumentuak 38

2017ko abendua

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

ELAren 14. biltzarra: inoiz baina politikoagoa den proiektua

Christian Dufour eta Adelheid Hege*

Euskal Langileen Alkartasuna (ELA) konfederazioak bere 14. biltzarra egin zuen 2017ko ekainaren 15ean eta 16an, Bilbon. Batez ere emakumeei eragiten dien enplegu prekarioaren eta sindikatuaren antolamenduan nagusi den patriarkatuaren aurkako borrokak etapa berri bat ireki du bere egiteko moduak birplanteatzera ohituta dagoen konfederazio honetan, helburu izanik soldatapekoen multzo osoa hartzea aintzat. Negoziazio kolektiboaren arauetan izandako aurkako aldaketez jabetuta, ELAk helburu zehatzetan zentratutako mobilizazioetan oinarritu du bere estrategia, etengabe eraldatzeko duen gaitasuna lagun.

ELA lanbide arteko erakunde subiranista da, eta hauteskunde sindikaletan botoen %36arekin, Hegoaldeko¹ sindikatu nagusia da. Langabeziarekin loturiko beherakada baten ostean, bere kideen kopuruak gora egin du berriz ere.

Biltzarra Euskal Herria eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozial sakinak gertatzen ari diren garai batean kokatzen da. Hemendik aurrera ELAk gizarte eztabaidetan izango duen lekuaren eta alderdien aldetik antzematen dituen egiturazko gabezien ondorioz sendotu egin du bere eragile politiko rola, praktika sindikaletik abiatuta. 2017ko irailetik, rol hori nola ulertzen zuen erakutsi du sindikatuak, konpromiso soberanista proposatuta hainbat indar ezkeriarri.

* Christian Dufour CRIMTeko (Mundializazioa eta Lanari buruzko Ikerketa Zentro Interunibertsitarioa) ikertzaile asoziatua da eta Adelheid Hege IREseko (Frantziako Ikerketa Ekonomiko eta Sozialerako Institutua) ikertzaile asoziatua da. Artikulu hau *Chronique internationale de l'IRE* N.º 158 aldizkarian argitaratu zen 2017ko urrian.

Borroka armatuaren amaiera eta berregokitzapena EAEn

ETAk² 2011n iragarri zuen borroka armatua bertan behera utziko zuela, eta horrek eraginak izan ditu poliki-poliki Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko harreman politiko eta sindikaletan.

Erkidegoko alderdi politikoak birkokatu egin dira hein batean. EAJ alderdi abertzale eskuindarrak kontrako gutxi duen hegemonia izaten jarraitzen du euskal erakundeetan. Ofizialki bere jatorrizko independentzia aldarrikapenetik urrundu da, pixkanaka hazten joango den autonomia baten kudeaketaren mesedetan, aintzat hartuta estatu nazionalen ahultze egiaztatua, eta, bereziki, Espainiako estatuarena, globalizazioaren garapenaren ondorioz. Bazirudien 2012an garrantzi eta borroka armatuarekiko hurbiltasun/urruntasun desberdineko alderdi nazionalisten kolizioatik sorturiko EH Bildu alderdiak azkar egingo zuela aurrera urte horretan bertan Autonomia Erkidegoko erakundeetan indarrez sartu ostean. Hala ere, 2016ko hauteskudeetan EAJk 3 puntu inguru berreskuratu zituen eta %37a lortu, nabarmen aldentuta EH Bildurengandik, zeinak 4 puntu egin zuen atzera, %21ean kokatzeko. Bi orientazio politiko horiek aldarrikatzen duten nazionalismoak zentzu oso desberdinak ditu, eta haien artean maiz sortzen dira gatazkak arlo horretan. Podemos-Ahal dugu alderdia, Espainiako estatuko hainbat lekutan planteaturiko gai nazionalekin deseroso, %15ean kokatu zen bat-batean, PSE-EEren (Espainiako alderdi sozialista den PSOEren euskal adarra) kaltetan, zeinak 7 puntu baino gehiago egin zuen atzera, %12an kokatzeko. Rajoyren Alderdi Popularrak (PP) 2 puntu egin zuen behera, %10ean kokatu arte.

EAJ Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako erakunde guztietan dago gobernuan: udalerrietan, foru aldundietan eta probintzietako hiriburuetan. 2016an itun bat sinatu zuen PSE-EErekin Euskal Autonomia Erkidegoan autonomiarekiko³ zuen jarrera berria oinarri hartuta. Alderdi Popularrak babestu egiten ditu, kasuaren arabera. Espainiako alderdi nazionalak, funtsean PP eta PSOE, aintzat hartu behar izan dute nazionalismoaren aurka zuzenean borrokatzeko tresna bat kentzen dien datu berri hori. Eredu publikoan, polemika gogorak daude borroka armatuaren ondorioen inguruan eta preso politikoen zoriari buruz.

Kataluniako independentziarekin loturiko mugimenduak interes handiz jarraitzen dira. Baina bi egoeren arteko distantzia oso sakona da oraindik; borroka armatuaren zauriak ez dira sendatu. Galdeketen emaitzak Euskal Herriaren⁴ independentziaren oso aurkakoak dira.

Manu Robles-Arangiz Fundazioaren bitartez, ELA parte izan da ETAREN egiazko armagabetzea bermatzen lagundu zuen eta Iparraldean hasitako

Bakearen Artisauen mugimenduan. Hainbat hamarkadaz sakabanaturiko armategi militarren desartikulatzea gizarte zibilaren ekimenez gauzatu zen. Ekintza horrek 2017ko apirilaren 8an Baionan eginiko manifestazioa izan zuen lagun⁶. Hainbat eta hainbat elkarte lotu zitzaizkion ekimenari, ELAren Iparraldeko kultur fundazioa barne, eta horretaz gain, kartzelaratu-tako zenbait bakegileak ere babestu dituzte.

ELAk modu positiboan ebaluatu ditu borroka armatuaren amaierarekin batera Euskal Herrian gertaturiko aldaketa politikoak. Baina, konfederazio honen esanetan, Euskal Herriak eta, bereziki, bertako ezkerak (abertzalea) programa defizit eta gabezia praktiko handiak ditu. Gauza ez da erakundeek kudeaketari begira hauteskondeetan EAJri aurre egitea soilik, baizik eta jakitea zer gizarte proiektu eta zer proiektu politiko dituen iparrorratz independentziaren aldeko mugimenduak.

ELAren ustez, EAJk kontzertu ekonomikoa enpresen alde kudeatu nahi du⁶. ELAk zenbait urte daramatza gai horri heltzen, eta zerga politikak eztabaidaren muinean jartzen. Gai hori dela eta konfrontazioa sor daiteke baita alderdi ezkertiarrekin ere, bereziki EH Bildurekin, agintera iristen diren eremuetan; izan ere, autonomia zabala dela eta, erabakitzeko gaitasuna baitute. ELAren arabera ez dira behar bezain beste agertzen kapitalismoarekiko alternatiba gisa, eta gizarte gaietan lotsatiak izaten jarraitzen dute erakundeetako erabaki postuetara iristen direnean. Podemos-Ahal dugu alderdiari dagokionez, gai nazionalekiko duen harreman anbiguoari lurraldean duen errotze mugatua batzen zaio; izan ere, hauteskondeetako emaitzekin oso lotuta daude lurralde honetan euskal erroak eta nortasun auziak.

Arlo sindikalean, ELAk gairatu egiten du boto kopuruan beste konfederazio abertzalea, LAB (%18), zeinarekin lotura estuak dituen. Bi sindikatu horien emaitzen baturak luze-zabal gairatzen du sarri bi konfederazio "españolistena": Comisiones Obreras (CCOO, % 0) eta Unión General de Trabajadores (UGT, %15)⁷. Azken urte hauetara arte LAB eta ELA argi eta garbi bereizten ziren, azkenak beti azaldu izan baitzuen bere proiektu independentistan borroka armatuaren aurka zuen jarrera. Orain, bi sindikatuen artean harremanak ezartzeko aukerak indartu egin dira (ikus beherago). Baina bakoitzaren ezaugarriak oso markatuta daude eta ezin dute bilakarerarik izan epe luzera ez bada. ELAk LABen pisu bikoitza du enpresetan hauteskondeei begira, eta ezarpen dinamismoa ere badu, Nafarroan ere ageri dena. Bi sindikatuak lankidetzan aritu izan dira batzuetan zenbait ekintza abian jartzeko, baina desoreka ageri da greba gogor eta luzeak

sustatu behar direnean. Ekintza mota hori elementu estrategikoa da ELArentzat, bereziki soldaten auzian eragin negatiboan jasaten dituzten pertsonen dagokienez (emakumeak, kontratu prekarioak dituztenak, eta abar), eta ELAk duen greba kutzak estrategia hori hauspotzen du (Dufour, Hege, 2013). Kontuan izan LABek ez duela halako kutxarik.

Hazkunde ekonomikoa eta soldatapekoen bilakaera

Hegoalde eremu ekonomiko oso garatua da, eta ez du zerikusi handirik Espainiako beste leku batzuekin, batez ere, hegoaldearekin. Azken 30 urteetan eraldaketa sakona jasan dute bertako azpiegiturek eta indar ekonomikoek. Antzinako industriak zaharkituta geratu ziren, eta Espainiakoa baino handiagoa zen langabezia indizea %20a gainditzen zuen 1980ko hamarkadan. Frankismoarekiko aurkaritza gogorra zela eta, EAEk ez zuen Madrilgo gobernuaren babesik jasotzen. Berregituratzei esker, langabezia tasa %3,5era arte jaitsi ahal izan zen 2008 baino lehen. 2016an %12 ingurukoa zen (%10 Nafarroan), hau da, Kataluniakoa, Madrilgoa (%15) eta Espainiako gainerako lekuetakoa (%18 batez beste) baino argi eta garbi txikiagoa. Baina gazteen langabezia indizea % 28 ingurukoa da. Lan egiten duten biztanleen kopuruak azkarrago egiten du behera biztanleria aktiboak baino. Gizarte Segurantzaren erregimenean izena emandako soldatapekoak milioi bat inguru ziren 2008an, eta 860.000 inguru 2014an; 2017. urtean 920.000 pertsonara igo da berriz kopuru hori. Langabezia egoeran dauden pertsonen dagokienez, 80.000 zeuden erregistratuta 2008an, eta 170.000 2014an; 2017an berriz ere 130.000 pertsonara jaitsi zen (Lan Harremanen Kontseilua, 2017: 16-18; 1. taula).

1. taula. Enplegua eta langabezia EAEn (2015-2017)

| | Biztanleria aktiboa | Biztanleria landuna | Biztanleria langabea | Biztanleria ez aktiboa |
|---------------------|----------------------------|----------------------------|-----------------------------|-------------------------------|
| Lehen hiruhila 2015 | 1.063.000 | 885.900 | 177.100 | 770.000 |
| Lehen hiruhila 2017 | 1.026.300 | 905.400 | 117.000 | 807.600 |
| Aldakuntza | -36.700 | +19.500 | -60.100 | +37.600 |

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua (2017:21). Zifren arteko aldeak kontabilizatutako eta estimatutako langabeziaren arteko bereizketari dagozkie.

Per capita BPGa 30.500 eurokoa zen 2016an, Espainiako batez besteko 24.000 euroen aldean. EAeko zorpetze publikoa BPGaren %15 ingurukoa da, eta gutxi gorabehera BPG horren heren bat esportatu egiten da. Aberastasunaren banaketari dagokionez, *subprime* krisialdia gertatu zenez, birbanaketako politika publikoek (zergak) eta pribatuek (soldatak) soldatek aberastasunean duten zatia txikitzea eraman dute azkar batean (2. taula).

2. taula. BPGaren barruan soldatei dagokien zatia (2010-2015)

| %-tan | 2010 | 2015 |
|-------------------|------|-------------|
| EAE | 49,2 | 46,7 |
| Nafarroa | 50,1 | 47,3 (2014) |
| Espainiar estatua | 50,2 | 47,6 |

Iturria: ELAren biltzarreko dokumentua.

Bost urtetan gertaturiko laneko diru sarrerren galera global horri (ELAK 2.300 milioi eurotan kalkulatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoarentzat eta Nafarroarentzat, 2015ean) soldatapekoen arteko desoreken areagotzea batu behar zaio: gizon eta emakumeen artekoa, gazte eta helduen artekoa, immigranteen eta tokikoen artekoa, soldata handi eta txikien artekoa, eta abar. Errua soldaten bilakaera desorekatuarena eta lan baldintzena da, baina prekarietate moduen bilakaerak berdin eragin die bi sexuei. Emakumeen %27k aldi baterako kontratuekin egiten du lan (eta gizonen %24k), eta %20ak baino gehiagok lanaldi partzialean, soldatapekoen %18ko batez bestekoarekin alderatuta.

2017ko udaberriko datu ekonomikoak nahiko positiboak dira: BPGa %2,9 hazi da bigarren hiruhilekoan, eta enpleguak %2,2 egin du gora Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen arabera. EAeko industriaren fakturazioek %7,1 egin zuten gora 2017ko ekainean 2016ko ekainarekin alderatuta, eta jasotako eskariek %14,8 egin zuten gora denbora tarte horretan, Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera. Espainiako estatu osoko datuak %6,5 eta %7,1 dira, hurrenez hurren. Langabeziak ia 3.000 pertsonan egin zuen behera 2017ko ekainean, 131.000 pertsonakoa izatera iritsita.

Enpleguaren bilakaera ez da hain positiboa izan ELAren azterketa bulegoak 2017ko uztailan argitaraturiko azterketa baten arabera (Manu Robles-Arangiz Institutua, 2017), 2017 urtearen lehenengo hiruhilekoan sinaturiko 300.000 kontratuetatik %36 lanaldi partzialekoak dira (horietatik

%49 emakumeei dagozkie) eta %91 aldi baterakoak. Emakumeei aldi baterako eginiko kontratuak batzuetan oso ordutegi laburrerako dira. Kontratuaren iraupena astebete baino gutxiagorako litzateke %11,8rentzat, eta hilabete baino gutxiagorako %45,7arentzat. Kontratu horietako asko, gainera, azpikontratuak dira.

Azterlan berak dio langabeziak behera egin duela, baina bat egiten du biztanleria aktiboaren atzerkadaren datuarekin. Estatistika Institutu Nazionalaren datuak hartuta, ELAk 123.000 enpleguko defizita berretsi du 2009 eta 2017 urteen artean, lehenengo hiruhilekoetan, eta hori zerbitzuen aurrerakada gorabehera. Eraikuntzak bere enpleguen %45 baino gehiago galdu ditu, eta industria, susperraldi nabarmena izan arren, 2009ko mailarekiko %10 beherago dago (3. taula). Horiek ziren ELAren bastioi sindikal zaharrenak.

3. taula. Enpleguaren bilakaera sektoreka (2009-2017)

| | Lehen hiruhilekoa 2009 | Lehen hiruhilekoa 2013 | Lehen hiruhilekoa 2017 |
|-------------|------------------------|------------------------|------------------------|
| Nekazaritza | 28.500 | 29.500 | 26.600 |
| Eraikuntza | 113.000 | 70.700 | 60.700 |
| Industria | 303.000 | 247.100 | 276.300 |
| Zerbitzuak | 802.400 | 790.000 | 806.800 |
| Guztira | 1.247.100 | 1.137.400 | 1.170.400 |

Iturria: Manu Robles-Arangiz Institutua (2017).

Lan Harremanen Kontseiluaren arabera (Lan Harremanen Kontseilua, 2017), lanarekin loturiko tentsioek gora egin dute 2017an. 2016ko urtarrietik maiatzera 65 greba antolatu ziren; denbora tarte berdinean, baina, 90 izan ziren 2017 urtean. Akordioak negoziatzeko epeak luzatu egin dira, eta CCOO eta UGT ondoen kokatuta dauden lekuetan bakarrik lortu dute sektoreko negoziazio gutxi batzuek emaitzetara iristea⁸. LHKko buruak dio oso zaila dela lan erreformek ezarritako negoziazio arau berriak aplikatzea. Esaterako hitzarmen estatalasko ez dira EAEn aplikatzen, %25a bakarrik dator Madrilan negoziatutakotik. Hortaz gain, hitzarmenak zahar geratzen dira. Soldatapekoen %28k bakarrik ditu akordio eguneratuak; gainerakoak birnegotziario prozesuan daude edo berdin mantentzen dira, edo besterik gabe, ez dira aplikatzen. Enpresetako hitzarmenak ez dira iristen sektoretako hitzarmenen estaldura galeraren indizeak konpentsatzera. Hortaz, zuhurtziaz hartu behar dira industriak bere soldatapekoen %98 baino gehiago akordio bidez estaltzen dituela dioten zifrak. Estatistika horien

beren arabera, zerbitzuek %85etik behera babesten dituzte. Gizonak %95ean daude akordioen bitartez babestuta, eta emakumeak, %83an. Zailtasunak gero eta handiagoak direla aintzat hartuta, 2017ko urtarrilean akordio bat sinatu zen EAeko hitzarmenek lehentasuna izan zezaten hitzarmen estatalen gainetik. Dena den, badira oraindik hainbat zailtasun juridiko eta aplikatzeko zailtasunak.

Edonola ere, bai sektoreen araberako enpleguak aldatu egin direlako, bai negoziazio kolektiborako arau berriak daudelako, egoera ekonomiko eta sozialak aldaketa oso sakonak jasan ditu⁹.

Erakundea garatzen eta eraldatzen norabide jakinean

2012-2016 bitartean, ELAren afiliazioa %7 murriztu da (105.000 afiliatu izatetik 98.000 izatera). 7.000 afiliatu horien galera langabezia igoerari eta enplegu maila murrizterei zor zaie. Obra publikoak eta eraikuntzak jasan dituzte ondorioak, bereziki. Erlatibizatu egin behar da, ordea, dena egoera ekonomiko txarragatik izatea: 2008 eta 2014 artean langabezia bikoiztu baino gehiago egin da, eta 2017an, oraindik ere, ez da berreskuratu 2008ko enplegu maila.

Hala ere, 2017. urtearen hasieratik, ELAren afiliazioak gora egin du.

Zifra gordinen atzean, zenbait datuk erakusten dute sindikatu oinarria aldatu egin dela. Bi biltzarren artean, emakumeen kuota %40 izatetik %44 izatera igaro da afiliatuen artean. Epe berean, ELAn afiliatutako Euskadiko soldatapeko emakumeen ehunekoa %8,6 izatetik %8,9 izatera igaro zen; gizonenak, aldiz, atzera egin zuen, %10,3tik %9,9ra. Afiliatuen %55ek 50 urte baino gutxiago dituzte, eta horien erdiak 40 urte baino gutxiago.

Duela 25 urtetik sistematikoki eramandako diru sarrera politikari esker, ELAk bere finantziazioaren %92a baino gehiago bere kideen kotizazioekin bermatzea lortu du. Datuok kongresuro egiten duten kanpo auditoria batean egiaztatzen dituzte: kazetari talde bat gonbidatzen dute afiliazio eta kotizazio liburuak zuzenean kontsultatzeri eta dagozkien banku ordainketak aurreko datuekin bat datozela egiaztatzeri.

ELAren kotizazio tasa handia da, Nazio Kontseiluak onartua beti; ELAk bere kideentzat greba kutxa bat du, iraupen luzeko grebak egin ahal izateko behar den lekuetan, eta baldintza egokiak betetzen dituzten eremuetan (betiere, erregulazio zorrotz baten menpe).

Grebak batez ere lan kontratuak oso hondatuta dauden lekuetan egiten dira. Esaterako, errepideetako mantentze lanetan 11 hilabeteko greba egin da azken urtean 8 urteko blokeoarekin amaituz eta lan erreforma

kanpoan uzten duen hitzarmen bat lortuz. Zahar etxeetako langileek eta zerbitzu publikoetatik kanporatutako zerbitzuek (jantokiak, kirol zentroak...), zeintzuek zerbitzu publiko klasikoekin alderatuta baldintza askoz ere kaskarragoetan lan egiten duten, gatazka luzeak eta, zenbaitetan, irabazleak izaten dituzte. Esaterako, 2017ko udan, zahar etxeetako langileek beste hilabete luzatu zuten, ordurako 270 egun luzatua zena¹⁰. Kiroldegi publikoetako animatzaileek beren hitzarmeneko soldata baxuenak %45 igotzea lortu zuten bost eguneko grebaren ondoren: hitzarmen kolektiboa blokeatuta zuten 2009az geroztik.

Horri esker, ELAk aurrerapen handia izan du era guztietako enplegu prekarioak dituzten soldatapekoen artean. Estrategiaren oinarria eraldaketa antolatzaileak dira. Konfederazioak hiru federazioen barruan soilik multzokatu ditu soldatapekoak: industria, zerbitzu pribatuak, sektore publikoa (4. taula). Sektore pribatuko bi federazioak, egiari zor, gutxiago bereizten dira jarduera ekonomikoko arloengatik soldatapekoak antolatzeke moduagatik baino. "Industriak lantoki ia bakarrak eta talde egonkorrak dituzten soldatapekoak eta lan iraunkorreko komunitaterik ez dutenak elkartzen ditu". Zerbitzu pribatuek lantoki ugaritasuna ezagutzen duten soldatapekoak hartzen dituzte. Aldea ez da horrenbeste enpresaren jarduera mota, soldatapekoen banakako eta taldeko egoera baizik. Metalurgia fabrika bat edo nekazaritzako elikagaien sektoreko, sektore kimikoko edo banku agentziako sektoreko fabrika bat nahiko antzeko moduetan antola daitezke. Aldiz, gaueko garbitzaileek, aldizkakoek, askotariko enplegu prekarioek edo enpresa oso txikiek bestelako presentzia sindikala behar dute. Enpresak federazio batera edo bestera lotzen dira irizpide horien arabera" (sindikalizazioko ELAko arduraduna). Antolakuntza hori hobetzeko, hiru eskualdetan pertsona interfederal bat jarri dute, bi federazioak aldi berean ordezkatzeko dituen. Tokian-tokian soldatapeko mota desberdinen kontaktak erraztea da helburua, eta haien ekintzak koordinatzea. "Antolakuntza eredu horrek eman ditu emaitzak, eta langile *atipikoen* artean ezartzea da konfederazioak kide gehiago izatearen gakoa". Guretzat, enplegu prekario horiek dituzten pertsonen antolakuntzak gai konponezin bat izateari utzi dio", baieztatu du arduradun berak.

Eredu izatea, eszenaratzea eta arrakasta izatea estrategia horren parte dira. 2016ko ekainetik uztailaren erdialdera, Bilboko Arte Ederren Museoa estrategia horren agertoki izan zen (hitzez hitz). Horren ondorioz, enplegu esternalizatuak berrintegratu ziren eta soldadak bikoiztu egin ziren (Elorrieta-Agirre, 2017). Komunikabideetan agertzea eta herritarrek Bilboko kaleetatik mobilizatzea izan zen sindikatu ekintzaren elementuetako bat.

Ustekabeko ondorio gisa, museoaren bisitak nabarmen areagotu ziren 2016an, grebagatik hainbat astez itxita egonagatik ere.

4. taula. ELAren afiliazioaren egitura, 2017ko martxoan

| Federazioa | Afiliatuak | % |
|--------------------------|---------------|---------------|
| Industria eta eraikuntza | 39.260 | 39,67 |
| Sektore publikoa | 32.910 | 33,26 |
| Zerbitzu pribatuak | 26.790 | 27,07 |
| Guztira | 98.960 | 100,00 |

Iturria: ELA, biltzarreko agiriak.

Prekaritatea eta feminismoa ardatz estrategiko gisa

Biltzarrak, ia aho batez onartutako beste ebazpen batzuen artean, sindikatuaren ezarpen eta eraldaketa estrategia bat berretsi zuen, egiturazko ardatz hauetan oinarrituta: prekaritatearen aurka borrokatzea eta patriarkatu sindikala zalantzan jartzea¹¹.

Prekaritatea eta emakumeen enplegua eskutik joan ohi dira. ELAk hamar urte baino gehiago daramatza enplegu prekarioak lantzen, eta esperientzia horretatik hainbat lezio garrantzitsu ondorioztatu ditu bere egiturarako. Eredu industrialista eta maskulino baten garapen inplizitua zalantzan jarri behar izan zen, bereziki, sindikatuaren organoetan lan egiteko moduetan. "Gai horrekin lotuta, ulertu zen eraldaketa erakundearen zuzendaritzatik etorri behar zela; bestela, porrot egingo zuen" (erakundearen arduraduna). Harrezkero, "antolakuntza genero ikuspegitik birpentsatzeko" ahaleginak egin ziren; ebazpen orokorraren kapitulu bat hala deitzen da (ELA, Ponentzia, 2017:42). Konfederazioak karguak eratu zituen prekario gehien dituzten enpresetan sindikatuaren garapena bermatzeko. Helburua soldatapeko prekarioak logika antolatzailearen bultzatzaile berriak bihurtzea da. Sindikatuaren egitura guztiei dei egin zitzaizen jarraipena egiteko eta ELAk nahi zuen sindikalismo mota modelatzeko mobilizazioetan parte hartzera. Helburua ez da federazio baten egitura errespetatzea, gatazka bakoitzak soldatapeko guztientzat duen eraginaz jabetzea baizik, tokiko mailan gutxienez. Greba oso luzei (kasu batzuetan, bi urte baino gehiago) erresistentzia kutzak eutsi zien. Greba horiei esker, esperientzia metatu zen. Greba horietatik ateratako arduradunak sindikatuak integratu zituen, garatzen zirela bermatzeko. Urte luzez, enplegu prekarioak zituzten langileek eginiko lan prekarioen aurkako borrokek sindikatu jar-

duna eta horien orientazio osoa tindatu zuten. Ekintza ildo hori borroka antikapitalista gisa sortu zen, eta soldatapekoak banatzeko estrategiei aurka egiteko modu gisa, bai eta nortasuna berresteko leku erabakigarri gisa ere.

Patronoek, bestalde, ikasi dute ELAk egoera prekarioan dauden langileekin duen konpromisoa sindikatua arrakasta lortzera bideratutako gatazkaren bermea zela.

ELAk banakoen nahiz taldeen denuntziak egiteko zerbitzu juridikoak ditu, besteak beste. Zerbitzu juridiko horiek deszentralizatuta daude eskualdeetan. ELAk eginiko iritzi inkestek agerian uzten dute afiliatuek eta soldatapekoek, oro har, konfederazioaren aukera estrategikoak eta antolaketa partekatzen dituztela. Inkesta horiek bereziki agertzen dute lanbideen arteko tokiko garapenaren estrategia, zerbitzu jakinetan dituen ondorioekin, bereziki ongi ulertzen dutela herritarrek.

Epe luzera planteatutako ekintza horiek aldarrikapenen ekoizpen eta antolakuntza moduei buruz galdetzera eraman dute konfederazioa. Duela bi urtetik, eredu patriarkalei buruzko barneko azterketari eta gogoetari ekin zaio, sindikatu jardunean eta egituretan eragina baitute. "Patriarkatu sindikalaren aurkako borrokari" buruzko eta antolaketa ereduari inplikazioari buruzko ebazpena izan da eztabaidatu den lehena; aho batez onetsi zen.

Klase sindikatu abertzalea, zeregin politikoa berresten duena

ELA sindikatu klase sindikatu abertzale gisa definitzen da. Nortasunari buruzko baieztapen bikoitz hori espainolista gisa sailkatutako sindikatuetatik eta kapitalismoa kudeatzen diren alderdi politikoetatik bereizteko planteatu da (Elorrieta, 2016).

Sindikalismoa, subiranismoaren zutoihaldun berria

Borroka armatuaren amaierari esker, ELA eta LAB sindikatuek errazago adierazi dezakete elkarrengandik hurbil daudela. 2017ko irailaren 4an, bi konfederazioek jarrera komun bat hartu zuten, euskal alderdi ezkertiarak (EH Bildu eta Podemos) deituz "aldebakarreko subiranismo ozialera"¹² bideratutako planteamendu batean konpromisoa hartzeko. Hainbat arrazoiren artean, bi sindikatuek, bereziki, Madrilek ezarritakoetatik urrun egongo den lan harremanen euskal esparruaren alde egiten dute. Lan harreman horiek bertako eragileen ezaugarri eta lekuari erantzungo lioke-

te, izan negoziazio prozeduren arloan izan gizartea babesaren arloan. Zerga sistema birbanatzaileagoa, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa eta ingurumena gehiago errespetatzen duen ekonomia batek osatzen dute plataforma komun horren proposamena. Gainera, euskal kultur espazioa sustatzea eta garatzea ere hartzen ditu barnean.

Sindikatuak arlo politikoan duen inplikazioaren baieztapen hori, batetik, Kataluniak erreferenduma prestatzen ari zen garaian, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia estatutua berrikustea eztabaidatzen ari den unean egiten da. Deialdi horretan, LABek eta ELAk gogor kritikatzeko dute PNVk eta bere aliatuek Rajoyren gobernuarekin dituzten elkarriketen bidea. Bestalde, euskal eragile horiek ez dute lortzen elkarren artean ados jartzea. PNVk irailaren 1ean deialdia egin zion EH Bilduri lankidetzan ari zela proposatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren autonomia estatutua berrikusteko esparru horretan¹³. EH Bilduko liderretako batek eskaintza horri emandako erantzuna berehalakoa eta zorrotza izan zen, "hutsik" zegoela ulertu zutelako, PNVk "Madrilekiko mendekotasunari eusteko..." erabakia hartu zuelako, PSOEek eta PPK egiten duten moduan. EH Bilduren aukera "zerga erreforma bat egitera eta justizia soziala eta gehiengoaren ongizatea lortzera" bideratuta egongo litzateke¹⁴. Aukera hori ELA eta LAB sindikatuen jarreraren oihartzuna da, eta haien zatik, PNV eta haien aliatuek Madrilgo leku menderatzailea zalantzan ez jartzeaz gain, Komunitatearen kudeaketa gaitasunak de facto areagotzen ahalegintzen dira, euskal "eliteen" onurarako.

Kataluniako erreferendumaren proiektua hurbildu ahala, penintsulako eragile politikoak mobilizatu egin dira gai horren inguruan, eta probatu egin ditu berez hauskorrak diren alderdien barruko kohesioak. PNVk, Espainiar Estatuaren barruko eztabaidaren une honetan, ez die Kataluniako asmo independistei babes urrun bat besterik eman. Orobat, Eusko Legebiltzarrean duen ordezkariak ez du lortzen ados jartzea estatutua berrikusteko proiektuari buruz. PSOE, barne-lidergo borrokek asaldatuta, ekainean egin zuen biltzarraz geroztik Espainia berrantolatzeko "plurinazionalitate" baten bila ari da¹⁵: zenbat nazio ditu Espainiak? El País Madrilgo egunkaria komunikabideen arloan nagusi da eta "sezesionisten" aurka dago. Gainera, atseginez nabarmentzen du PSOErentzat konponezina den "zirkuluaren koadratura"¹⁶. Podemos, barne demokraziako antolakuntza arazoek banatuta dagoen honetan, bere lekua bilatzen ahalegintzen ari da prozesu katalanean¹⁷; Euskadin, lidergo gatazka batek asaldatuta dago, eta nekez iristen dira beren jarrera ildoak aurkitzera. PSE-EEK sindikatuen jarreraren mehatxua hartu du bere estrategiarako eta gizarte

agenda bat bultzatzea hitzeman du EAEko gehiengorentzat, estatutu berria onetsi ondoren. PPK, Rajoy babestuz, Espainiar Estatuaren batasuna defendatzeko ildo irmoari eusten dio. Hartara, alderdi horri eragiten dioten ustelkeria kasu anitzak bigarren plano batean, ezkutuan, geratzen dira, baina argitara ateratzeko aukera txikiaren zain.

Bi konfederazioen deialdiaren argitalpenaren bezperan, El País egunkariak hitza eman zien hiru euskal soziologori. Haientzat, Kataluniako gaiak Euskal Herria kutsatzeko arriskua baztertuta geratuko litzateke¹⁸, Euskal Herriaren historia, nahiz berriki izandako krisitik irteteko baldintzak, bestelakoak baitira.

Sindikatuaren proposamenak, itxura denez, indar politiko menderatzaileak aurka izateaz gain, galdeketak eta adituen analisiak ere aurka ditu. Bi erakundeek nahikoa ondo ezagutzen dute beren errealitatea oztopo handien jakitun izateko. Haiek kontrabotereko indar gisa nabarmendu nahi dute, iritzi publikoan eztabaidak duen une oso sentikor batean, borroka armatua amaitu ondoren, euskal subiranotasunaren ideiarri zentzu desiragarria emateko. Badakite lan gogorra eta luzea izango dela.

Negoiazio kolektiboaren ikuskera politikoa

ELA sindikatuarentzat sozialdemokrazia ez da konponbide bat, Madrilen PSOEk, boterean zenean, erakutsi zuen moduan. Euskal erakundeak ez ditu onartzen Europako sozialdemokraziaren bertsioak eta Europako Sindikatuen Konfederazioaren barruan duten babesa. Sindikatua konfederazio horretako kidea da sortu zenetik. Horrek, ordea, ez zion eragotzi Europako Sindikatuen Konfederazioko idazkariorde nagusiak ELAren sindikatu jardunarekin eta ikuspegiekin ados zegoela adieraztea.

ELAk, ezkerreko alderdi politikoen akats larri eta betierekotzat hartzen duenari dagokionez, bere zeregin politikoa aldarrikatzen du, eta, biltzarrean, hori onartuko zuela hitzeman zuen, sindikatuaren zeregina onartzen zuen aldi berean. "Datozen urteetan inoiz baino politikoagoak izango gara" adierazi zuen idazkari nagusiak biltzarrean, zuzendaritza taldearekin batera, botoen %88 ingururekin berriz hautatua izan baino lehen. Zeregin politiko hori soldatapeko guztiak aintzat hartze gisa ulertzen da: soldata bidezko diru sarrera eta diru sarrera sozialak, gizon eta emakumeen arteko erlazioak, osasunerako sarbidea izateko baldintzak, zerga politika, euskal identitatea... Horiek ere soldatapekoen berezko elementuak dira, eta sindikatu batek erantzun egin behar die. Sindikatuen eta alderdi politikoen artean lana banatzeko ukapen abstraktu bat baino (azken horiek ardura-

dun estrategikoak izango lirateke, eta lehenengoak, berriz, erabaki horien ondorio sozialen kudeatzaileak), ekintza kolektiboaren logikaren berbideratze sistematikoa da, zeina ELAk duela 25 urte baino gehiago abian jarri zuen (Dufour, Hege, 2009, 2013). Negoziazio kolektiboa (ELAren estrategiaren funtsezko elementua) ez da tratularien jarduera gisa soilik ulertzen. Bere bitartez, soldatapeko talde desberdinak identitate batean biltzen saiatzen da, bere burua klase sozialtzat hartuz. Ildo horretan, negoziazio kolektiboa, demokrazia sindikalean eta greba ekintzekin babestua, ez da sartzen elkarrizketa sozialaren adiera menderatzailean. ELAk utzi egin ditu elkarrizketa sozialerako leku instituzionalak eta uko egin die horiekin lotutako finantza onurei¹⁹. "Denbora asko galtzen genuen eta barnean eztabaidatu behar izaten genituen benetan interesatzen ez zitzaizkigun gaiak, gure sindikatuaren estrategiarako garrantzitsuak ez zirenak" (idazkariorde nagusia). Biltzarrerako egindako txostenak "iruzurtzat" hartzen du elkarrizketa soziala, eta beste leku batean hartutako eta soldatapekoen interesen aurkako erabakiak apaindu besterik ez ditu egiten. Hartara, ELAk sindikatu "espainolistekin" duen aldea azaldu du, azken horiek beren diru sarreren zati handiena erakunde horietan egotetik eskuratzen baitute. ELAk, aitzitik, tokian bertako esku hartzeen ugaritasunean atera nahi ditu bere baliabideak. Atzo, negoziazio sektorialean, funtsean; gaur eta bihar, enpresa borroketan.

Ondorioa: liderraren papera

Euskal subiranotasuna barne hartzen duen eragile politiko bat izatearen aldarrikapenak kezkatu egiten ditu eragile politikoak, Hegoalden eta harago. PNV, PSE eta PPren arteko aliantza haserre dago "ELAk estrategia sindikala baino politikoagoa izateak sortzen duen asaldura sozialagatik"²⁰. Horrela, ELAk bere esku hartzeko eremuan duen eragin erabakigarria bere aurkari nagusiek aitortzen diote; beldur dira konfederazio horrek antolakuntzan eta strategiaren diseinuan duen esperientzia eta jakintza iman indartsua izango ote den dudatan dauden aliatuentzat, LAB eta EH Bildurentzat kasurako, eta mehatxatuta sentitzen diren soldatapekoentzako gune fokala izango ote diren. ELA eta LAB sindikatuen jarrera komunak arrazoia ematen diela dirudi.

Zapateroren negoziazio kolektiboaren erreformaren (2010) eta Rajoyren lan erreformaren (2012) aldaketek ELA eraman dute bere oinarria are gehiago ahalduntzen saiatzera, ekintza sindikalaren koordinazioa baliatuz. Sektore sindikalak, honez gero, ez direnez egokienak soldatape-

koen egoera hobetzeko, langileengandik ahalik eta hurbilen esku hartu behar da, enpresetan, alegia. Egokitze estrategiko horrek, antolakuntza plastikotasun handian babesten denak, militanteen belaunaldi gazteetan aurkitzen du erantzuna. Espainiar Estatuko sindikatu bizilagunak (Katalunia...), batzuetan bi konfederazio nagusietan txertatuak, behatzaile interesatu gisa etorri ziren Bilboko biltzarrera.

ELAk, berriro ere, zentzua eman dio langileen mugimenduaren egia zahar honi: "eskubide sozialak ez dira soilik ahulenei eskainitako babesa, baizik eta ekiten ari den demokrazia honen tresnak dira eta *gizartea egitea* ahalbidetzen duen aglutinatzailea"²¹. Zalantzarik gabe, ibilbide honen zati da "ahulena", batik bat emakumeak, izatea kontzientzia hartze horren eragile nagusiak. Eskubide sozialak, horiek eskuratzeagatik eta horiek eskuratzean, ekiten ari den demokraziaren adierazpena dira; ez dira murrizten eskaintza estatiko batetik eta hauteskunde ondorioetatik eratorritako onuratar. Are gutxiago, Estatua ez legezkatat hartzen denean.

Iturriak

Dufour C., Hege A. (2009), " Pays basque: 12e congrès de ELA, confédération syndicale basque ", Chronique internationale de l'IRES, 117. zk., martxoa, 27.-36. or.

Dufour C., Hege A. (2013), " Pays basque: Congrès de ELA : redéfinir les priorités syndicales en temps de crise ", Chronique internationale de l'IRES, 140. zk., apirila, 41.-54. or.

ELA (2017), Ponentzia, Indarberritzen, 14. Kongresua, ekainak 15-16, http://www.ela.eus/eu/kongresua/dokumentuak/ponentzia_eus.pdf.

Elorrieta J. (2016), Una mirada sindical contracorriente, clase, territorio y nuevas alianzas, Bartzelona, Icaria.

Elorrieta-Agirre A. (2017), " Museo Bellas Artes de Bilbao, El arte de la huelga ", IZAN TA ESAN, 5. zk., ekaina.

Kortabarria G. (2015), No pudimos ser amables, ELA 1976-2006, Arre, Pamiela.

Lan Harremanen Kontseilua, Consejo de Relaciones Laborales (2017), Situación socio-laboral in Euskadi, I trimestre de 2017, maiatza, http://www.crl-lhk.eus/images/infSociolaboral/I_trimestre_2017.pdf.

Manu Robles-Arangiz Institutua (2017), " El empleo no crece ", Análisis de coyuntura, 134, uztaila.

Egileen partaidetza biltzarrean, ELAren bulego nazionalako eta exekutiboko kideekin izandako elkarrizketak, 2017ko ekaina.

1. Hego Euskal Herriak (Hegoalde), ELAren esku-hartze perimetroak, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hiru lurraldeak –Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia– eta Nafarroa biltzen ditu. Euskal Herriaren egituren deskribapen bat, ELAren aurkezpen historikoa eta haren antolamendu garapena eza-gutzeko ikus Dufour, Hege (2009; 2013).

2. Euskadi Ta Askatasuna.

3. J.-J. Kourliandsky, "La patrie entre Espagne et Pays basque", Le Huffington Post, 2017ko urtarrilak 24.

4 2016ko abenduko Euskobarometroa eta "Abertzales en horas bajas", ABC, 2016ko irailak 20.

5. <https://bizimugi.eu/artisans-de-la-paix-le-8-avril-2017-une-journee-entree-dans-lhistoire>.

6. ELAk gogor kritikatu ditu nagusitasuna duten alderdi politikoen eta enpresen artean ezarritako harremanak. Espainiako estatua kutsatzen duen ustelkeriak ez du Euskal Herria kanpoan uzten. Kataluniak ez du halako zerga estatutu autonomo zabalik.

7. Enpresa kontseilurako hauteskundeetan lortutako datu horiek Euskal Autonomia Erkidegoari eta Nafarroari eragiten diote. Erkidegorako bakarrik, % 40, % 19 eta % 11 dira emaitzak, hurrenez hurren. Euskal Herriko sindikatuen arteko lehia eta hortik eratorritako exijentziak direla eta, ordezkari buruzko datuak erabat sendotzat jo daitezke. EAerako xehaturiko hauteskunde prozedurari buruzko akordio batek eta Nafarroarako beste batek bereizten ditu Espainiako gainerako lurraldeetatik.

8. Lan Harremanen Kontseilua (2017). Cf. halaber "La insatisfacción laboral genera un aumento de las huelgas en el País Vasco", El Mundo, Euskadi, 2017ko uztailak 19. Lan Harremanen Kontseilua, parekidea berau, ELAk partaidetzarik ez duen gizarte elkarrizketako eremuetako bat da, beste erakunde batzuen aldean.

9. Gizarte Segurantzaren izena emandako atzerritarren kopuruak % 7,39 egin zuen gora 2017ko uztailaren 2016ko uztailarekin alderatuta. Hau da, 3.891 pertsonatik 56.545erako gorakada. 38.102 afiliatu Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetakoak dira: 4.928 marokorak, 3.028 boliviarrak eta 2.965 nikaraguarak. EBko 18.443 afiliatuetatik 8.770 errumaniarrak dira, 3.633 portugaldarrak eta 369 italiarrak. El Mundo, 2017ko abuztuak 23.

10. "Las trabajadoras de las residencias seguirán de huelga hasta el 17 de septiembre e intensificarán las movilizaciones en Aste Nagusia", El Mundo, Euskadi, 2017ko ekainaren 17a. 300 greba egun baino gehiagoren ondoren, 2017ko irailaren 27an hitzarmen bat sinatu zen ELAren eta sektoreko patronoen erakunde nagusiaren artean (langileen % 40). Grebalarien aldarrikapenak asebeste dira funtsean: 35 ordu astean, 1.200 euro garbiko hileko soldatak, gaixotasun bajengatik hartutako egunak ordaintzea, iraupen luzeko etengabeko prestakuntza, igandean lan egiteagatik soldata hobaria, ordaindutako oporrak zazpi aste izatera luzatzea. Grebak jarraitu egingo du erakunde patronal osagarri batek sinatzea lortu arte; orduan, patronoen ordezkarritasunaren % 50 eskuratuko da, eta akordioa hitzarmen kolektibo bihurtuko da Bizkaiko 5.000 langileentzat.

11. Bost ebazpenenak hauek dira, aurkezpen ordenaren arabera: 1. patriarkala ez den sindikalismo baten alde, indarkeria sexistari ez; 2. Euskadin lan egiteko eskubidearen alde, asimilazio kulturalaren aurka; 3. Har dezagun alternatiba sozial eta ekologikoetan parte aktibo izateko konpromisoa; 4. prestazio sozialen sistema unibertsal baten alde: eskubideen defentsa, diskriminazioaren eta xenofobiaren aurka; 5. herrien askatasunaren alde. Kataluniar Errepublikaren alde. Sartu hemen:

http://www.ela.eus/es/kongresua/documentos/resolucionesdenak_cas.pdf

12 "ELA y LAB defienden un proceso soberanista unilateral y social ", ELA Sindikatua, ELA/LAB, 2017, 2017ko irailaren 4a,

<http://www.ela.eus/es/noticias/ela-y-lab-defienden-un-proceso-soberanista-unilateral-y-social>.

13 "El PNV tiende la mano a EH Bildu para "trabajar por el país", El País, Euskadi, 2017ko irailaren 1a,

https://elpais.com/ccaa/2017/09/01/paisvasco/1504286868_531826.html.

14. "Erizar tacha de "vacía" la oferta de colaboración del PNV a EH Bildu", El Mundo, Euskadi, 2017ko irailaren 2a,

<http://www.elmundo.es/pais-vasco/2017/09/02/59aae947ca4741d33c8b461c.html>.

15. J. Marcos, "Pedro Sánchez propondrá al congreso del PSOE que vote la plurinacionalidad de España ", El País, 2017ko maiatzaren 25a,

https://politica.elpais.com/politica/2017/05/25/actualidad/1495714352_983478.html.

16. J. Marcos, J.J. Mateo, "El PSOE y la cuadratura de la plurinacionalidad", El País, 2017ko irailaren 3a,

https://politica.elpais.com/politica/2017/09/02/actualidad/1504375778_375960.html.

17. E. García de Blas, " Iglesias, Colau y Domènech celebrarán su propia Diada por la "soberanía de Cataluña"", El País, Katalunia, 2017ko irailaren 3a,

https://elpais.com/ccaa/2017/09/01/Catalunya/1504261657_669635.html.

18. Luis R. Aizpeolea, "Cataluña y Euskadi, en las antípodas", El País, 2017ko irailaren 3a,

https://politica.elpais.com/politica/2017/09/03/actualidad/1504461950_517938.html.

19. Bereziki, lanbide heziketako eskaerak dira, oso sariztatzailleak penintsulako sindikatueterako, gizarte batzordeetarako, hainbat adarretako batzordeetarako...

20. "El mayor sindicato vasco impulsa con Bildu un frente de agitación soberanista. ELA suma fuerzas con los abertzales contra la gestión del lehendakari Urkullu ", El País, 2017ko ekainaren 23a.

21. S. Kott, "La citoyenneté sociale, école de la démocratie, les assurances sociales allemandes à la fin du XIXe siècle", France Culture, 2017ko ekainaren 30a,

<https://www.franceculture.fr/emissions/petit-precis-dhistoire-lusage-des-candidats/la-citoyennete-sociale-ecole-de-la-democratie>.

